

**JARDUNBIDEA:** Azpeitiko Euskara Patronatuan sor daitezkeen euskara **irakasleen** beharrak betetzeko indarrean dauden lan-poltsak handitzeko deialdia.

**DEIALDIA:** Alkatetzak **2007ko maiatzaren 8an** emandako ebazpen bidez onartutakoa.

### **Lehenengoa.- Deialdiaren helburua.**

Deialdi honen helburua, oposizio sistema erabiliz Azpeitiko Euskara Patronatoa udal-patronatoan lan-poltsa bat osatzea da, ondokoetarako balioko duena:

- a) Irakasleak hartzea Azpeitiko Udal Euskaltegian euskara eskolak emateko, behin-behineko ikasle hazkundera dela-eta.
- b) Oro har, Udal Patronatuko langileen hutsuneak betetzea, haiek lanerako aldi baterako ezintasun edo baja egoeran gertatzen direnean edota beste edozein arrazoigatik lanpostuan ez daudenean.

Horretarako zerrenda bat eratuko da, hautaketa-prozesua amaitzen denetik indar izango duena, eta zerrenda horretatik izendatuko dira aldi baterako funtzionario interinoak, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen Hamazazpigarren Xedapenean jasoa dagoenaren arabera.

Dena dela, zerrenda honen lehenengo postuetan egongo dira aurrez Lanpoltsa bat sortzeko hautaketa-prozesuen bat gainditu eta gaur egun Udal Patronatuan lanean ari diren aldi baterako kontratatutako langileak eta horiek ez dute prozedura hau osatzen duten hautaketa-probak berriro egin beharrik izango.

Lanaldia urtero zehaztuko dena izango da eta, bete behar den lanpostuaren ezaugarriak kontuan izanik helburu horrekin onartuko den lan-egutegiaren arabera egingo da.

Lanpostuari dagokion soldata EUFALEBAn zehaztutako 13. mailari dagokiona izango da.

### **Bigarrena.- Zereginak.**

Deialdi honen helburu den lanpoltsa honen bidez izendatutako langileek ondoren zehaztuko diren zereginak egin beharko ditu. Era berean, Patronatuak zehaztutako helburuak lortzeko izendatu den pertsoaren gaitasun eta ahalmen profesionalekin bat, aginduko zaizkion beste lan batzuk ere egingo ditu.

- a) Kalitatezko klaseak eman.
- b) Ikastetxearen planaren tajuketan parte hartu.
- c) Programazioaren diseinuan parte hartu.
- d) Sarrera eta ebaluaketa probak sortu, jarri eta ebaluatu.
- e) Bere ardurapean dagoen mailari dagozkion oroitidazki edo memoriak idatzi, irakasle-batzak egingo dituen bileretan aztertzeko.

- f) Material didaktikoa sortu eta frogatu.
- g) Koordinazio lanetan partaide eraginkorra izan eta bilera horietan hartutako erabakiak aurrera eraman.
- h) Irakasle-batzaren bileretan parte hartu.
- i) Liburutegi, bideo-bilduma, hizkuntza-laborategi, eskolaz kanpoko jarduera eta abarren gainean Zuzendariak agindutako lanak egin.
- j) Ikasleen asistentzia-kontrola eraman.
- k) Bere burua etengabe jantzi hizkuntzen didaktikan.

### **Hirugarrena.- Izangaien baldintzak.**

Prozeduran onartua izateko eta, bategokio, deialdian parte hartu ahal izateko, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- a) EEE-ko edozein estatutako nazionalitatea izatea.
- b) 18 urte beterik izatea.
- c) Magisteritza, Unibertsitateko Diplomaduna edo Unibertsitateko Lizentziaduna izatea.
- d) Laugarren hizkuntz eskakizunari dagokion ezagutzaren jabe dela egiaztatzea oposizioaldian.
- e) Ez edukitzea lanpostuko egitekoetan ohiko jarduna eragotz dezakeen eta horiek bete ahal izatearekin bat ez datorren gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik. Hori Osakidetzak emandako txostenaren bitartez egiaztatu beharko da.
- f) Disziplinazko espedientearen bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik baztertua ez izatea.
- g) Ezintasun edo bateraezintasun auziren batean sartuta ez egotea.

Hirugarren Oinarrian zerrendatutako baldintzak, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete eta, bitarteko funtzionario gisa jabetza hartu arte izan beharko dira.

### **Laugarrena.- Eskabideak aurkeztea.**

Hautaketa prozesuan parte hartu nahi duten izangaiek, eredu ofizial eta normalizatuan egin beharko dute. Eredu hori Azpeitiko Udalaren erregistro nagusian edota Azpeitiko Euskara Patronatoa Udal-Patronatoaren bulegoetan eskuratu ahal izango da eta oinarri hauetako **I. Eranskinean** ere badator.

Oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskabideak Azpeitiko Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduko zaizkio eta ondorengo baldintza hauek bete beharko dituzte atzera boteak ez izateko:

- a) Izangaiek, eskaerak aurkezteko azken egunerako, 3. Oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute.
- b) Aldi berean, merezimendualdian kontuan hartzeko merituei buruzko zehaztasunak azaldu beharko dituzte. Eskabide orriarekin batera azaltzen eta egiaztatzen ez direnak ez dira baloratuko.
- c) Eskabideei honako dokumentazioa erantsi beharko zaie:

- Nortasun Agiriaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko eskatu den tituluaren fotokopia.
- 4. hizkuntza eskakizuna lortua dela frogatzen duen dokumentuaren fotokopia
- Eskabidean zehazten diren merezimenduen egiaztagiria, Lehiaketa Fasean baloratzeko:

Herri Administrazioetan betetako zerbitzuak organo eskudunak luzatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, kategoria profesionala eta betetako lanpostua, burututako funtzioak, lan egindako denbora eta lanaldi erregimena zehaztuz.

Enpresa pribatuetan izandako esperientzia, enpresak luzatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, betetako lanpostua eta burututako funtzioak, lan egindako denbora eta funtzio horietan emandako denbora zehaztuz. Gainera, Gizarte Segurantzako ziurtagiria beharko da, edo, hori ezean, agiri fiskala. Lan kontratuaren kopia ere baliozkoa izango da, Gizarte Segurantzako ziurtagiriarekin batera aurkezten bada.

Langile autonomoek, lizentzi fiskalaren kopia beharko dute, autonomoen erregimenera egindako kotizazioen ziurtagiria edo jarduera ekonomikoetarako zergan altan egondako denborari dagokion ziurtagiria, egindako lan profesionaleri dagokien dokumentazioaz gain.

Azpeitiko Udalean egindako zerbitzuak eta bertan jasotako lanbide esperientzia, beti ere instantzian alegatu izan badira, ez dira dokumentu bidez kreditatu behar izango eta izangaien espediente pertsonaletan jasotako datuetan oinarrituz baloratuko dira.

Prestakuntza ikastaroak egiaztatzeko, ziurtagiriaren kopia beharko da, ikastaroa eman duen erakundearen izena, ikastaroaren izena, iraupena, eta ahal bada programa. Ikastaroaren iraupena orduetan adierazi ezean, Epaimahaiaren esku geldituko da baloratu edo ez baloratzea.

- d) Eskabideak, behar bezala beteta, Azpeitiko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren **biharamunetik 20 eguneko epean**.

1992ko azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Lege-Jaurbidea eta Administrazioaren Jardunbide Arruntari buruzko Legeko 38.4 atalak agindutakoari jarraiki, postetxeetan aurkeztu ahal izango dira eskabide orriak eta Udaleko alkate-lehendakariari gutunazal irekian zuzenduko zaizkio, aurkezteko epearen barruan ziurtatu aurretik, posta bulegoko funtzionarioak data eta zigilua jarri eta ziurtatu ditzan. Horrela eginez gero bakarrik hartuko da posta bulegoan aurkeztutako eguna erregistro orokorrean sarrera emandako eguntzat.

Eskaeraren batek akatsik izanez gero, 10 eguneko epean akatsa zuzendu edo derrigorrezko agirirak aurkezteko eskatuko zaio interesatuari, hala ezartzen baitu azaroaren 26ko 30/92 Legearen 71. artikulua; eta, halaber, jakinaraziko zaio hori egin ezean bere eskaera besterik gabe artxibatu egingo dela.

## **Bosgarrena.- Izangaiak onartzea.**

Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du Azpeitiko Udalaren Alkate-Udalburuak, eta legokiokeenean jarri egin beharko dira baztertzeko arrazoiak, eta ebazpen horretan bertan izendatuko dira Kalifikazio Epaimahaia osatuko duten kideak ere. Ebazpen hau Azpeitiko Udalaren iragarki-oholean eta Azpeitiko Euskara Patronatoa udal-patronatoan argitaratuko da.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikularen arabera, Aipatutako zerrendatik baztertutako izangaiei **10 laneguneko epea** emango zaie ebazpena Udaletxeko iragarki-oholean jartzen den egunaren biharamonetik hasita, zerrendan ez onartze horren oinarrian leudekeen akats edo hutsuneak zuzentzeko edo eta erreklamazioak tartekatu ahal izateko.

Ondoren, Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko da onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrenda, bai eta lehenengo ariketa egiteko eguna ere.

Kalifikazio Epaimahaiaren jakinarazpen eta komunikazio guztiak Azpeitiko Udaletxeko eta Azpeitiko Euskara Patronatuko iragarki-oholetan jarriko diren iragarkien bidez egingo dira.

## **Seigarrena.- Kalifikazio-epaimahaia.**

Probetarako Kalifikazio Epaimahaia kide titularrek eta hauen ordezkoez osatuko dute. Hauen izendapena Azpeitiko Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko da eta era honetan osatua izango da:

Epaimahaiburu:

- Alkatea edo honek eskuordetzen duen zinegotzia.

Mahaikide:

- Giza Baliabide eta Antolamendu Batzorde Berriemaileko zinegotzia.

- Hezkuntza eta Euskara Batzorde Berriemaileko zinegotzia.

- Azpeitiko Euskara Patronatoaren arduradun teknikoa.

- HABEren ordezkari bat.

- Langileen ordezkari bat.

Idazkari:

- Udalarena.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) ordezkari bat izendatuko da, Euskara proba egiteko soilik.

Epaimahaiak, bere lanak egiteko egoki iritziko balio, epaimahaikideei euren zereginetan lagunduko dieten aholkulariak ekarri ahal izango ditu. Aipatutako laguntzaileek bakoitzari dagokion alorreko aholkularitza teknikoa besterik ez dute emango.

Epaimahaikideek ezingo dute parte hartu, eta hala adierazi beharko diote Alkate-Udalburuari, eta izangaiek ere atzera bota ahal izango dituzte, indarrean den Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28. eta 29. artikuluetan zehaztutakoaren arabera.

Epaimahaiak erabakiko ditu oinarri hauek ezartzerakoan sor daitezkeen zalantza guztiak, bai eta aurrikusiak ez dauden egoeretan zer egin behar den.

### **Zazpigarrena.- Probak:**

#### **- Lehenengo ariketa: Izangai guztiek derrigorrez egitekoa eta baztertzailea.**

Euskarako 4. hizkuntz eskakizuna frogatzeko izango da. Gai edo ez gai kalifikatuko da.

Euskarako 4. hizkuntz eskakizuneko ezagupenak badituztela egiaztatzeko frogak egingo dituzte izangaiek eta froga horien era eta edukia HAEE-IVAPek zehaztuko ditu.

#### **-Bigarren ariketa: Izangai guztiek derrigorrez egitekoa eta baztertzailea.**

##### Glotodidaktikako ezagupen proba:

Kalifikazio Epaimahaiaren buruak gai bat aterako du Oinarri hauetako **II. Eranskinean** jasoak daudenen artetik, izangai guztiek hura idatziz gara dezaten.

Proba honek gehienez 40 puntu izango ditu eta gutxienez 20 puntu atera beharko dira.

#### **-Hirugarren ariketa: Proba hau nahitaezkoa eta baztertzailea izango da izengai guztientzat auerrera egiteko.**

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurikulua kontuan izanda, izangai guztiek 20 minutu iraungo duen klase praktiko bat eman beharko dute. Prestaketa lanetarako 30 minutu izango dituzte. Klase hau prestatu ahal izateko, Euskaltegiko materiala kontsultatzeko aukera izango dute.

Proba honi gehienez 40 puntuko balorazioa emango zaio eta gaintitzeko gutxienez 20 lortu beharko du.

### **Zortzigarrena.- Lehiaketaldia.**

Oposizioaldia gaingaitako izangaiak, lehiaketaldira sartuko dira. Epaimahaiak, lehiaketaldi honetan, ondorengo merituak baloratuko ditu, Oinarri hauetan xedatutakoaren arabera eskabidean aipatuak izan badira eta kopia konpultsatuen bidez sinesgarriri egiaztatu badituzte izangaiak, beti ere.

1- Bete behar den lanpostuarekin lotutako zereginak burutuz Herri Administrazioan egindako lanagatik, hileko 0,20 puntu, gehienez 5 puntura arte.

2- Bete behar den lanpostuarekin lotutako zereginak burutuz Enpresa Pribatuan egindako lanagatik, hileko 0,10 puntu, gehienez 2,5 puntura arte.

3- Irakasle postuarekin lotutako heziketa-ikastaroak, masterrak edo graduondoko unibertsitate tituluak, bekak, etab.

- 20 ordutik 50 ordu bitarteko bakoitzagatik: 0,25 puntu.

- 51 ordutik 100 ordu bitarteko bakoitzagatik: 0,50 puntu.

- 101 ordutik 200 ordura bitarteko bakoitzagatik: 1,00 puntu.

- 201 ordutik 300 ordura bitarteko bakoitzagatik: 2,00 puntu.

- 300 ordutik gorako bakoitzagatik: 3,00 puntu.

Atal honetan, lor daitekeen gehienezko puntuazioa 4 puntukoa izango da.

### **Bederatzigarrena. Gaingaitakoen zerrenda.**

Deialdiko proba guztiak bukatutakoan, Kalifikazio Epaimahaiak hautaketa prozesuaren amaieran izangaiak atera dituzten emaitzen zerrenda argitaratuko du Udaletxeko iragarki-oholean.

Izangai bakoitzaren kalifikazio orokorra izangaiak proba bakoitzean atera dituen puntu guztien batuketak emango du.

Azpeitiko Euskara Patronatua udal-patronatuan sortzen diren aldi baterako langile beharrak ikusita, puntuazio hurrenkeraren arabera aurrez deia eginda, Azpeitiko Udalak aldi baterako funtzionario izendatuko ditu lan-poltsan leudekeen izangaiak, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen Hamazazpigarren Xedapen Gehigarrian xedatua dagoenaren arabera.

Irakasle lanak izateko deia jasoko lukeen izangaiak, berari egotz lekizkiokkeen arrazoiengatik ez balu lanpostua onartuko, lan-poltsa hau osatzen duen zerrendako azken postura pasatuko da. Puntu hau Erakunde Autonomiadun horretako arduradun teknikoak izapidatuko du.

Lan-poltsak indarrean jarraituko du poltsa hori osatzen duten izangaiek lanerako prest jarraitzen duten bitartean. Arduradun teknikoak ezin duenean lan-poltsa hori erabili beharrak betetzeko, txostena bidaliko dio Alkateari, lan-poltsa amaitutzat ematea eskatzeko.

### **Hamargarrena.- Kontratazioak egin aurretik aurkeztu beharreko agiriak.**

Lan-poltsa osatuko duten izangaiek, kontratazio administrazioa egin aurretik, ondoren zerrendatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- a) Deialdian parte hartzeko eskatutako titulazioaren fotokopia egiaztatua.
- b) Nortasun txartelaren fotokopia egiaztatua.
- c) 4. Hizkuntz Eskakizuna badela frogatzen duen agiriaren fotokopia egiaztatua.
- d) Edozein administrazioen zerbitzutik disziplina-espediteren baten bidez baztertua ez dagoela edota 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun arrazoiren batean sartua ez dagoela aitortzen duen zinpeko aitortpena.

Era berean, Azpeitiko Udalak izangaiari eskatu ahal izango dio Azpeitiko Udalak berak izendatutako sendagile batek emandako sendagile-ziurtagiria aurkez dezala eskatzeko aukera, proposatutako lanpostuaren zereginak betetzea eragotziko duen inolako gaisotasun edo akats fisikorik ez duela ziurtatuko duena.

### **Hamaikagarrena.- Gorabeherak.**

Deialdia honen, honen Oinarrien eta haietatik eta Epaimahaiaren jardueretatik sor daitezkeen administrazio-egintza guztien aurka jo ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen azaroren 26ko 30/1992 Legean jasoak dauden modu eta epeetan.

## **I. ERANSKINA – ANEXO I**

### **AZPEITIKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA DEIALDI PUBLIKOAN PARTE HARTZEKO ESKAERA / SOLICITUD PARA PARTICIPACIÓN EN CONVOCATORIA PÚBLICA**

<b>Sarrera Erregistroa / Registro de Entrada</b>	<b>Zein deialditara aurkezten da? / Se presenta a la siguiente convocatoria</b>

#### **1.- NORTASUN DATUAK / DATOS PERSONALES**

<b>Lehen Abizena / Primer Apellido</b>	<b>Bigarren Abizena / Segundo Apellido</b>	<b>Izena / Nombre</b>	
<b>N.A.N. / D.N.I.</b>	<b>Jaiotze data / Fecha de nacimiento</b>	<b>Telefonoa / Teléfono</b>	
<b>Helbidea / Domicilio</b>		<b>Herria-Herrialdea / Población-Provincia</b>	<b>P.K. / C.P.</b>

#### **2.- HEZIKETA / FORMACIÓN**

**Deialdian eskatutako tituloa / Título académico exigido en la convocatoria**

<b>Titulua / Título</b>	<b>Zentrua eta Herria / Centro y población</b>	<b>Data / Fecha</b>

**ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN  
AGIRIAK**

**DOCUMENTOS QUE SE ADJUNTAN A ESTA  
SOLICITUD**

- Nortasun Agiriaren Fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.
- Hizkuntz eskakizunaren egiaztagirien fotokopia edo baliokide den tituluarena.
- Fotocopia del D.N.I.
- Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria.
- Fotocopia del certificado de Perfil Lingüístico o del título equivalente.

Behean sinatzen duenak, eskaera honi dagokion El abajo firmante SOLICITA ser aceptado en hautaketa-probetan onartua izatea ESKATU NAHI las pruebas de selección correspondientes a la DU, eta BAIEZTATU NAHI DU bertan azaltzen presente instancia y DECLARA que los datos que diren datuak egiazkoak direla eta Oinarrietan hace constar en la misma son verídicos y que cumple eskatutako baldintzak betetzen dituela, eta hitz eman todas las condiciones especificadas en las bases, así du hala eskatzen zaionean jatorrizko agiri bidez como que, cuando le sea solicitado, presentará las zurituko dituela. correspondientes documentaciones originales.

Azpeitian, 2004ko .....ren .....an

Azpeitia, a..... de..... de 2004

---

Sinadura

---

Firma

**AZPEITIKO UDALAREN ALKATE JAUNA**

**SR. ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA**

## II. ERANSKINA/ ANEXO II

### AZPETIKO UDAL EUSKALTEGIAREN BEHARRAK BETETZEKO LAN-POLTSA

#### **GLOTODIDAKTIKA GAIAK:**

- 1.- Helduen euskalduntzea. Helduen Euskalduntzearen oinarrizko kurrikulua: hizkuntza, ikaskuntza, ingurune soziokulturala, metodologia eta ebaluazioa.
- 2.- Hizkuntzaren ikas/irakaskuntza. Nola ikasten du ikasle batek?
- 3.- Hizkuntzaren ikuspegia. Hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboa.
- 4.- Metodologia. Atazetan oinarritutako irakaskuntza.

#### **BIBLIOGRAFIA**

##### Gai guztietarako **oinarrizkoa:**

- Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK). HABE, 1999.
- Erreferentzia Marko Europar Bateratua. Europako Kontseilua, HABEk euskaratua, 2002.

##### **1. gaia:**

- Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK). HABE, 1999. [www.habe.org](http://www.habe.org) (Zerbitzuak, didaktika argitalpenak) Kultura sailaren Agindua 2000ko otsailaren 8ko EHAAn.

##### **2. gaia:**

- Erreferentzia Marko Europar Bateratua. Europako Kontseilua, HABEk euskaratua, 2002. (6. atala).
- Willis, Jane (1999): Atazetan oinarritutako ikaskuntzarako lan-markoa. HABE, itzulpen saila, 41, 15-45 orr.

##### **3. gaia:**

- Zock, Michael (1992): Arianaren haria. HABE, Itzulpen saila, 31.
- Erreferentzia Marko Europar Bateratua. Europako Kontseilua, HABEk euskaratua, 2002.

#### **4. gaia:**

- Skehan, Peter (Thames Valley University): Atazetan oinarritutako ikaskuntza gauzatzeko marko bat. Hizpide 39 (1997), 80-103 orr.
- Willis, Jane: Praktikatzen duguna predikatuz, irakasten duguna erakutsiz. Atazetan oinarritutako ikaskuntza, APPren alternatiba bat. Hizpide 37 (1996), 82-89 orr.
- Willis, Dave (Birmingham Unibertsitateko Ingeles Ikasketen Zentroa): Syllabusak, corpusak eta datuek gidatutako ikaskuntza. Hizpide 39 (1997), 104-122 or.

Azpeitian, 2007ko maiatzaren 8an.